

KOORDINAZIOA LAN HARREMAN ETA GIZARTE LANGINTZAKO ARABAKO ATALEAN

Gizarte Langintzako Gradua ezartzeaz batera, koordinazio prozesua jarri du martxan Eskolak. Prozesuaren ebaluazioaren ondoren, ANECaren txostenak 14/15 ikasturterako onartutako irizpideetara egokitzeko helburuarekin, Ikasturte Koordinatzailearen ordezkari Modulu Koordinatzailearen postua sortzea proposatzen da.

Ondorengo lerroetan, proposatutako koordinazio egiturarekin batera, honako hauek ere azalduko dira: unibertsitateak postu bakoitzerako aitortutako kreditu kopurua; haien funtzioak; hautapen irizpideak eta prozedura; beharrezko baliabide materialak; eta UNIKUDEn sartzeko eskatzen diren ebidentziak.

KOORDINAZIO EGITURA ETA KREDITU AITORPENA JAPen

- **Zuzendaritza taldea**
 - o Kreditu aitortzen gabe
- **Titulu koordinatzailea**
 - o Unibertsitatearen aitortpena: 3 ECTS eta Unibertsitatearen ziurtagiria (edo Eskolarena)
- **Modulu koordinatzaileak**
 - o Unibertsitatearen aitortpena: 1 ECTS /modulu¹ eta Unibertsitatearen aitortpena (edo Eskolarena)
- **Irakasgai koordinatzaileak**
 - o Eskolaren ziurtagiria
- **Irakaskuntza taldea** (tituluan irakasten duten irakasleak)

¹ 4 ECTS aitortuko dira gehienez, ikasturteen edo moduluen koordinazio bitartez, eta pertsona bat baino gehiagoren artean banatu ahal izango dira.

FUNTZIOAK

TITULU KOORDINATZAILEAREN FUNTZIOAK (3 ECTS)

Ikastegiko **Kalitate Batzordean** arituko da, Kalitatearen Berme Sistemaren eta EHUNDU² konpromisoen ezarpenean eta jarraipenean laguntzen, eta eginkizun hauek izango ditu:

Ikasleei dagokienez

- Informazioa ematea ikasleei ikastegiaren koordinazio egiturari, horietako bakoitzaren funtzioei eta ikasturte bakoitzeko pertsona arduradunei buruz.
- Ikasleen parte-hartzea indartzea: ikasturteko ordezkaria hautatzeko prozesua eta Ikasleen Kontseiluaren hautapena bultzatzea; gainera, ikasleen parte-hartzea indartzea Ikastegiko Batzarrean, ikastegiko batzordeetan, Campuseko Batzarrean, Klaustroan, etab.
- Harremanak erraztea ikasleen, ikasturteko irakasleen, koordinazio taldearen eta Zuzendaritza Taldearen artean.
- Ikasleekin eta irakasleekin, ikasturtean arazorik izan ez dadin koordinazio lanak egitea. Erreferentziako pertsona izango da behar edo arazorik sortuz gero.
- Hobetzeko proposamenak eta iradokizunak biltzea, eta ikasleak tituluaren ebaluazio prozesuan parte hartzera bultzatzea.

Irakasleei dagokienez

- Koordinazio ekintzak indartzea, eta **aldian-aldian bilerak antolatzea irakasleekin**, ikasturtearen jarraipena egin eta sortzen diren gorabeherari aurre egiteko.
- Informazioa ematea irakasleei ikastegiaren koordinazio egiturari, horietako bakoitzaren funtzioei eta ikasturte bakoitzeko pertsona arduradunei buruz.
- Irakasle-ikertzaileen inplikazioa eta parte-hartzea indartzea koordinazio prozesuetan.
- Ikastegiaren koordinazio sarea, eta modulu eta irakasgai koordinatzaileen lana babestea, eta hobekuntza estrategiak ezartzea.
- **Tituluaren jarraipen txostena egitea.**

² Jarraipenean erabili beharreko EHUNDU adierazleak honako hauek dira: irakasgai bakoitzeko bi lerroak koordinatzea; metodologia aktiboak aplikatzea; euskaraz argitaratzea; hizkuntza ez-ofizial batean irakasteko akreditazioa; arlo espezifikotako irakaskuntza esperientzia berritzaileei buruzko komunikazioen aurkezpenen eta/edo artikuluen argitalpenen akreditazioak; ikasleekin eginiko kanpo eta/edo barne bisitak, titulu bidezko ikaskuntzari lotuak, prestakuntza arautuan eta osagarrian (jarduera egin aurretik bete beharreko erregistro bat dago horretarako); ikasleen parte-hartzea prestakuntza eta kudeaketa jardueren antolakuntzan.

- Lankidetzan aritzea Ikastegiko Zuzendaritzarekin **tituluaren hedapenari** lotutako funtzioetan, ikasle berriei informazioa helarazteko ekintzetan eta irakaskuntza berrikuntzako eta etengabeko prestakuntzako jardueretan.
- Martxan jartzea eta koordinatzea **tituluaren garapen eraginkorrerako** behar diren ekintzak, tituluaren egiaztapen dokumentuan jaso diren konpromisoak betetzen direla ziurtatuta.
- Lanerako behar duen **materiala**, ANECA txostena... helaraztea koordinazio taldeari, eta edukiei, metodologiari eta ebaluazioari dagokienez hartutako konpromisoak betetzeko prozesuan laguntzea.
- Modulu eta irakasgai koordinatzaileekin koordinatuta, **Irakaskuntza Giden** berrikuspenean parte hartzea, bai eskaini beharreko edukiei dagokienez, bai gaitasunak eskuratzeko eta irakaskuntza nahiz ebaluazio metodologiak egokitzeko proposatzen diren prestakuntza jardueri dagokienez.
- **Zeharkakotasuna** indartzea gai/irakasgaien artean, **zeharkako gaitasunak** esleituz, Gizarte Langintzaren bere definizio espezifikoa emanez eta errubrikak definituz.
- Koordinazio taldearekin elkarlanean, ikasleek ikasturtean zehar **lan karga homogeen eta arrazionala** izan dezaten ahalbidetzea, gai/irakasgai bakoitzean eskatzen zaizkien jarduerak (aurrez aurrekoak eta beste era batzuetakoak) erraz egiteko modua izan dezaten.
- **Irakasleen prestakuntza eskaerak** biltzea eta bideratzea, titulua egoki ezartzeari loturik dauden alderdietan.

MODULU KOORDINATZAILEAREN FUNTZIOAK

- Titulu koordinatzaileak deitutako **bileretara joatea**.
- Irakaskuntza taldeen jarraipena egitea eta koordinatzea, **aldian behingo bileren** bitartez: lauhileko bakoitzean bilera bat gutxienez.
- **Irakaskuntza gidak** moduluko irakasgaietan **egoki betetzen** direla bermatzea, baita ANECA txostenean hartutako konpromisoak (edukiei, metodologiari eta ebaluazio irizpideei dagokienez) eta EHUNDU konpromisoak ere.
- Irakaskuntza Gidak berraztertzea eta, irakasleekin batera, hurrengo ikasturterako aldaketak eta egokitzapenak egitea.
- **Koordinazioa** indartzea irakasgai bat irakasten duten **irakasleen artean**.
- **Edukiak** koordinatzea **irakasgaien artean**. Gainezarpenak detektatzea eta errepikapenak saihestea.
- Laguntza eskaintzea **zeharkako gaitasunak** irakasleen artean banatzean, gaitasun horiek irakaskuntza gidetan sartzean, eta gaitasun horiek definitu eta ebaluatuko dituzten errubrikak osatzean.

- **Irakaskuntza estrategiei** eta prestakuntzan duten eraginari buruzko baterako gogoeta eta esperientzia trukea proposatzea, irakaskuntza berrikuntzako proiektuak planteatzeko aukerarekin.
- **Ikasleen lan karga globala** koordinatzea, gainerako taldekideekin batera, eta ikasleei eskatzen zaizkien prestakuntza jardueren eta lanen kronograma egitea.
- Proposatutako **ebaluazio sistemen** egokitzapena koordinatzea eta gainbegiratzea, eta etengabeko ebaluazioa indartzea.
- Ikasleei eskaintzen zaien **prestakuntza osagarriaren** koordinazioan parte hartzea, titulu koordinatzailearekin batera.
- Orientazioa eskaintzea ikasleen giden formalizazioan, **Docentiaz** irizpideen arabera.

IRAKASGAI KOORDINATZAILEAREN FUNTZIOAK

- Modulu eta/edo ikasturte eta tituluko **irakaskuntza taldearen bileretara** joatea, eta irakasgaiaren garapenaren berri ematea modulu eta titulu koordinatzaileei.
- Irakasgaiaren **irakaskuntza gida** aurreikusitako epeetan egin, garatu, berrikusi eta entregatzeaz arduratzea, ANECA agentziak ezarritako konpromisoak betetz, gaitegiari, metodologiari eta ebaluazioari dagokienez.
- Irakasgaiaren **gaitasun** espezifikoen eta zeharkako gaitasunen definizioa eta ezarpena koordinatzea, baita haien ebaluaziorako errubriken elaborazioa ere.
- **Irakasgaiaren plangintza** eta ikasleen **ikaskuntza prozesua** koordinatzea gaia irakasten duten irakasleekin.
- Irakaskuntza berrikuntzari lotutako metodologia aktiboen eta beste ekintza edo ekimenen ezarpena indartzea.
- **Ikasturteko beste irakasgai** batzuekin, edukiekin eta lan kargarekin koordinatzea.
- Ikasgelan eta ikasgelatik kanpo irakasgaiaren garapena erraztuko duten **kanpoko agenteen bisitak koordinatzea**, eta bisita horiek Kalitate Zuzendariordetzarekin koordinatzea.

IRAKASKUNTZA TALDEAREN FUNTZIOAK

Graduko tituluen oinarritzko koordinazio egitura Irakaskuntza Taldearen funtzionamenduan oinarritzen da, eta titulu baten irakaskuntzan ari diren irakasle guztiek osatzen dute talde hori.

- Koordinazio **bileretan** parte hartzea (titulu, modulu edo ikasturte koordinazioa). Irakasle guztiek egin behar dute hori; irakasgai baten koordinatzaileek bereziki.

- Irakaskuntza hobetzeari begira, irakasgai, ikasturte, modulu eta/edo titulu mailan hartu diren koordinazio **akordioak kontuan hartu eta onartzea**.
- ANECAk onartutako gutxieneko edukien eskaintza errespetatzea.
- Irakasgaien gaitasunak definitzea, erreferentziazat harturik tituluaren **gaitasunak** (orokorrak eta zeharkakoak) eta egiaztatutako txostenean onartutako modulu gaitasunak.
- Irakasgai bakoitzean garatu beharreko **metodologia aktiboak eta prestakuntza jarduerak** proposatzea, era orekatuan lauhilekoan zehar. Ahal den neurrian, zeharkako eta diziplinarteko jarduerak proposatzea.
- Irakasgaien **ebaluazio** sistema ezartzea, Graduaren txosten egiaztatuak ezarritakoaren arabera.
- Tituluaren kalitatea hobetzeko balio dezaketen beharrak eta/edo **iradokizunak** detektatzea.

HAUTAPEN IRIZPIDEAK

Koordinazioaz arduratuko diren pertsonak hautatzeko, irizpide batzuk hartu behar dira kontuan:

- **Titulu koordinatzaileak:**

- o Gutxienez 5 urtez irakasten aritu izana Gizarte Langintza tituluan.
- o Ikastegiari atxikitako irakaslea.
- o Lanaldi osoko kontratua eta kontratua egonkortasunarekin (iraunkorra eta atxikia).

- **Modulu koordinatzaileak:**

- o Gutxienez 2 urtez irakasten aritu izana moduluaren irakasgairen batean.
- o Ikastegiari atxikitako irakaslea.
- o Lanaldi osoko kontratua eta kontratua egonkortasunarekin (iraunkorra eta atxikia).

- **Irakasgai koordinatzaileak:**

- o Gutxienez 1 urtez irakasten aritu izana koordinatu beharreko irakasgaiari.
- o Lehentasuna izango dute ikastegiari atxikitako irakasleek, lanaldi osoa dutenek eta kontratu egonkorra dutenek (iraunkorra eta atxikia).
- o Ikastegiari atxikitako irakasle bakoitzak gutxienez irakasgai bat koordinatzea proposatzen da.

Kasu guztietan, kontuan hartuko dira irakasleak bere gain hartutako gainerako kudeaketa eta koordinazio erantzukizunak.

Garrantzitsua da kontuan hartzea honako hau: koordinazioaz arduratuko den pertsona zuzendaritza taldekoa denean, ez da krediturik aitortuko Jardun Akademikoaren Planean.

HAUTAPEN PROZEDURA

Titulu koordinatzaileak:

- Ikastegiko Zuzendaritza Taldeak proposatzea, eta, hala badagokio, Ikastegiko Batzarrak berrestea.

Modulu koordinatzaileak:

- Ikastegiko Zuzendaritza Taldeak proposatzea, eta, hala badagokio, Ikastegiko Batzarrak berrestea.

Irakasgai koordinatzaileak:

- Ikastegiko zuzendaritzak ikastegian irakasten duten Sailei eskatuko die irakasgai koordinatzaile bat proposatzeko, kontuan izanik aurretik aipatutako irizpideak.
- Sailen proposamena jasota, Ikastegiko Batzarrean aurkeztu eta, hala badagokio, berretsi egingo da.

BALIABIDE MATERIALAK

- ANECA txostena.
- Koordinazio txostenaren eta akten jarraibideen dokumentua.
- Irakaskuntza gidaren jarraibideen dokumentua.
- Irakaskuntza gidetan aldaketak egiaztatze dokumentua
- Tituluko gaitasunen dokumentua.
- Eskola orduen erregistroaren dokumentua.
- Kanpo eta barne bisiten erregistroko dokumentua.
- Eta abar.

Proposatutako ereduaren arabera lan egingo da.

EBIDENTZIAK

- Modulu eta irakasgai koordinazio lanaren kronograma.
- Koordinazio bileren txostena eta aktak.
- Irakaskuntza gidak (GAUR ereduaren arabera).
- Ikaslearen gidak.
- Ikaslearen modulu bakoitzeko lan kargaren erregistroa.
- Irakaskuntza gidetan aldaketak egiteko eskaera.
- Kanpo eta barne bisiten erregistroa.
- Eta adostuko diren beste batzuk.

Ebidentziak lauhilekoaren amaieran entregatuko zaizkie modulu eta titulu koordinazioei.